

PRENTSARAKO OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK ETA EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAK GOGOETARAKO ETA EZTABAIDARAKO “EMAKUMEAK BIZKAIAN” II. JARDUNALDIAK ANTOLATU DITUE ZEZEILEKO MARTITZENETAN

- “Emakumeak Bizkaian. Nolakoak gara, nola ikusten gaituzte” izenburuagaz, hainbat arloko profesionalak lau mahai-ingurutan hartuko dabe parte zezeilaren 4, 11, 18 eta 25ean Bilbon.
- Horreen artean dagoz Ainhoa Hernández eskubaloi jokalaria eta munduko azpi-txapelduna, Marta Macho zientzialaria, Bardintasunaren Emakunde sariduna edo Miren Arzallus historialaria, Pariseko Moda Museoaren zuzendaria.
- Emakumeak gizartean beteten dauen lekuaren ganeko igazko jardunaldien berbaldi interesgarriak batzen dituan “Emakumeak Bizkaian, argi-itzalak” liburua be aurkeztu da.

(Bilbon, 2020ko urtarrilaren 31n).- Bizkaiko Batzar Nagusiak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen (EAE) Bizkaiko Batzordea alkarregaz arituko dira barrero, emakumeek gizartean beteten daben lekuaren ganean gogoetea egiteko eta eztabaidatzeko konbitea egiten daben jardunaldi interesgarriak eskaintzeko. “Nolakoak gara, nola ikusten gaituzte” izenburuagaz, Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak (RSBAP), igaz lehenengoz eta arrakasta handiz egin zan “Emakumeak Bizkaian” Jardunaldiaren II. edizinoa antolatu dau.

Jardunaldiek, beste horrenbeste gai jorratuko dituen lau mahai-inguru izango ditue, eta zezeilaren 4an, 11n, 18an eta 25ean, 18:30etik 20:00etara Bizkaiko Batzar Nagusien Bilboko egoitzaren Ekitaldi Aretoan (Hurtado de Amezaga, 6) egingo dira.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak eta RSBAP alkarteko Estibaliz Apellanizek, Begoña Cavak, eta Inés Pellónek, jardunaldiak eta igazko jardunaldien berbaldi interesgarriak batzen dituan “Emakumeak Bizkaian, argi-itzalak” liburua aurkeztu dabe gaur.

Otadui azaldu dauenez, aurton hizlari guztiak ez dira emakumeak izango. “Gizonezkoak be ekarri gura izan doguz, euren ikuspegia emoteko, bardintasuna guztion artean eregiten da eta. Bizkaiaren erradiografia emongo deuskuen kalidadezko hizlariak eta profesional bikainak dira”, azpimarratu dau.

II. jardunaldi horreek, Bizkaiko emakumeek XXI. mende honetan dituen planteamentuen, jakin-minen, rolen eta erronken ganeko ahots eta eretxiak gehitzen jarraituko dabe.

Hizlari azpimarragarriak

Aurton, emakumeek, alkarren artean zerikusi handirik ez daukien arloetan, kirolean, barrikuntzan, teknologian, sare sozialetan edo kudeaketa sortzailean, hain zuzen be, egin daben beharraren proiektinoa, aztertu gura da, gai bakotxa emakumeen eta gizonen eretxiakaz jorratuta. “Nolakoak gara, nola ikusten gaituzte” jardunaldiak, euren eguneroko jardunbide profesionala kirol edo museo munduko kudeaketako, ikerketa zientifikoko, barrikuntza teknologikoko edo hezkuntzako erantzukizuneko lanpostuetan beteten daben emakumeen presentzia izango dau.

Horreen artean dagoz Ainhoa Hernández eskubaloi jokalaria eta munduko azpitxapelduna, Marta Macho zientzialaria, Bardintasunaren Emakunde sariduna edo Miren Arzallus historialaria, Pariseko Moda Museoaren zuzendaria.

Emakumearen Nazinoarteko Egunaren aurrekari moduan, zezeileko martitzen guztietan gai honeek jorratuko dituen jardunaldiak egingo dira: “Emakumeak kirolean” (zezeilaren 4an), “Emakumeak gizartearen erronka handien aurrean” (zezeilaren 11n), “Emakumeak, gazteria eta gizarte-sareak” (zezeilaren 18an) eta “Emakumeak, sormen-kudeaketan eta komunikazioan” (zezeilaren 25ean).

EAEko kide eta unibersidadeko doktore diran Inés Pellónnek, Eva Arriluceak, Estibaliz Apellanizek eta Begoña Cavak moderatuko ditue lau mahai-inguruak. Hogei hizlari inguruk, gehienak emakumeak, hartuko dabe parte leku guztiak bete arte sarrera libre eukiko daben mahai-inguruetan.

Egitaraua

Martitzena, 2020ko zezeilaren 4a, 18:30ean.

Jardunaldien inaugurazio ofiziala Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari, Ana Otaduiren, Bizkaiko Batzordeko presidente, Lorenzo Goikoetxearen, eta EAEko agintarien eskutik.

“EMAKUMEAK KIROLEAN”

Aurkezlea eta moderatzailea: **Inés Pellón**, Kimika Zientzietan doktorea (UPV/EHU)

Hizlariak:

Ana de la Parte, Universitario Bilbao Rugby Club (UBRC) taldearen zuzendaria

Marian Galíndez, Bilboko Club Deportivo klubaren presidentea

Ainhoa Hernández, Barakaldoko Balonmano Zuazo eskubaloi kluba

Kepa Lizarraga, Kirol eta Gazteria Saileko (Bizkaiko Foru Aldundia) medikua

María Tato, Bilboko Athletic Club taldearen zuzendaria

Martitzena, 2020ko zezeilaren 11, 18:30ean.

“EMAKUMEAK GIZARTEAREN ERRONKA HANDIEN AURREAN”

Aurkezlea eta moderatzailea: **Eva Arrilucea**, Ekonomian doktorea (UPV/EHU)

Hizlariak:

Ana Ayerbe, Trustech-en (Tecnalia) zuzendaria. Zibersegurtasunaren alorrean aditua

Jon Barrutia, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko (UPV/EHU) dekanoa

Leire Bilbao, Innobasqueko zuzendari nagusia

Lorena Fernández, Identitate Digitalaren zuzendaria (DU)

Martitzena, 2020ko zezeilaren 18a, 18:30ean.

“EMAKUMEAK, GAZTERIA ETA GIZARTE-SAREAK”

Aurkezlea eta moderatzailea: **Estibaliz Apellaniz**, Geologian doktorea (UPV/EHU)

Hizlariak:

Itziar Errazti, Psikologo hezitzailea. DBHko generoziberindarkeriaren alorrean aditua

Jorge Flores, “Pantallas Unidas” blogaren fundatzailea eta zuzendaria

Esmeralda Hernando, Blogger, “Conoce Bilbao con Esme”

Marta Macho, “Mujeres Con Ciencia” blogaren argitaratzailea. Kultura Zientifikoko Katedra (UPV/EHU)

Martitzena, 2020ko zezeilaren 25ea, 18:30ean.

“EMAKUMEAK, SORMEN-KUDEAKETAN ETA KOMUNIKAZIOAN”

Aurkezlea eta moderatzailea: **Begoña Cava**, Historian doktorea (Deustuko Unibertsitatea)

Hizlariak:

Andoni Aldekoa de la Torre, Euskalduna Jauregiaren zuzendari orokorra

Miren Arzallus, Palais Gallierako zuzendaria. Pariseko Modaren Museoa

Verónica Elorza, Euskadiko Lurralde Zentroaren (TVE) zuzendari ohia

Begoña Marañón, Eskualdeko zuzendaria (Cadena SER)

Jardunaldien itxiera - Ekitaldi ludikoa

150 ale

Jardunaldiakaz batera, “Las mujeres en Bizkaia, luces y sombras” liburua be aurkeztu da. Liburuaren 150 ale argitaratu dira, eta bertan 2019ko zezeilaren 5, 12, 19 eta 26an egin ziran I. Jardunaldietako ondorioak eta proposamenak jasoten dira. Igazko jardunaldiek aurtongo jardunaldien formatu bera euki eben, emakume hizlari adituek lau gai handiren inguruko esperientziak eta azterketak aurkeztu eta azaldu ebezan (“Emakumea Zientzian”, “Emakumeak XXI. mendeko gizartean”, “Emakumea, Lidergoa eta Ekintzailatza” eta “Emakumea Politikan”).

M^a Begoña Cava eta Inés Pellón dira “Emakumeak Bizkaian” jardunaldien lehenengo edizioaren ekarpen baliotsuak jaso gura dituan liburuaren editoreak.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak argitalpenaren hitzaurrean esaten dauen moduan: “Emakumeen erresilientziaren eta sororitatearen garaian gagoz, emakumeen arteko ahiztatasun hartu-emon horretan, eta bardintasunaren aldeko apustua egin eta horretan ari diran gizon askoren konplizidadeagaz, gizonen eta emakumeen arteko gero eta bardintasun handiagoaren benetako etapa barria zabalduko dau Bizkaian”.

Bardintasuna, guztion helburua

Bizkaiko Batzar Nagusiek Euskalerrriaren Adiskideen Elkartegaz, 1764an sortu zan eta euskal kulturaren arloan antxinakoena dan erakundeagaz, batera antolatzen dabe berbaldi programea. “Emakumeak Bizkaian. Nolakoak gara, nola ikusten gaituzte” II. Jardunaldiak, Alkartearen Bizkaiko Batzordearen jardueren ezaugarria dan informazio, pentsamentu, eztabaida eta proposamen dinamikaren barruan sartzen dira, eta baita Bizkaiko Batzar Nagusiek, emakumeen eta gizonen arteko bardintasuna lortzeko bere jarduketaren arlo guztietatik bultzatzen dauen helburuaren barruan be.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA Y LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAÍS ORGANIZAN LAS II JORNADAS DE REFLEXIÓN Y DEBATE “LAS MUJERES EN BIZKAIA” LOS MARTES DE FEBRERO

- **Bajo el título “Las mujeres en Bizkaia. Cómo somos, cómo se nos ve”, profesionales de distintos campos participarán en cuatro mesas redondas los días 4, 11, 18 y 25 de febrero en Bilbao.**
- **Entre ellas, la jugadora de balonmano y subcampeona del mundo Ainhoa Hernández, la científica Marta Macho, premio Emakunde a la Igualdad, o la historiadora Miren Arzallus, directora del Museo de la Moda de París.**
- **Se ha presentado también el libro “Las Mujeres en Bizkaia, luces y sombras”, que recoge las interesantes ponencias de las jornadas del año pasado sobre el papel de la mujer en la sociedad.**

(Bilbao, a 31 de enero de 2020).- Las Juntas Generales de Bizkaia y la Comisión de Bizkaia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (RSBAP) vuelven a colaborar para ofrecer unas interesantes jornadas que invitan a reflexionar y debatir sobre el papel de las mujeres en la sociedad. Con el título “Cómo somos, cómo se nos ve”, las JJGG de Bizkaia y la RSBAP han organizado la II edición de las jornadas “Las Mujeres en Bizkaia” que se celebraron con gran éxito de público por primera vez el año pasado.

Las jornadas constan de cuatro mesas redondas sobre otros tantos temas que se celebrarán los días 4, 11, 18 y 25 de febrero de 18:30 a 20:00 horas en el Salón de Actos de la sede bilbaína de las Juntas Generales de Bizkaia (Hurtado de Amézaga, 6).

Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, así como Estibaliz Apellaniz y Begoña Cava, e Inés Pellón, en representación de la RSBAP, han presentado hoy estas jornadas y el Libro “Las Mujeres en Bizkaia, luces y sombras”, que recoge las interesantes ponencias de las jornadas del año pasado.

Otadui ha explicado que este año no todas las ponentes son mujeres. “Hemos querido incluir también a hombres para que nos den su visión, porque la igualdad se construye entre todos. Son ponentes de calidad y grandes profesionales que nos darán una radiografía de Bizkaia”, ha destacado.

Estas II jornadas seguirán aportando nuevas voces y discursos sobre los planteamientos, las inquietudes, los roles y los retos a los que se enfrenta la mujer vizcaína en este siglo XXI.

Destacadas ponentes

Este año las jornadas proponen analizar la proyección de la labor realizada por las mujeres en áreas tan dispares como el deporte, la innovación, la tecnología, las redes sociales o la gestión creativa abordando cada una de las cuestiones con opiniones tanto femeninas como masculinas. ‘Cómo somos, cómo se nos ve’ contará con la presencia de mujeres que en su día a día desarrollan su actividad profesional en puestos de responsabilidad en la gestión deportiva o museística, la investigación científica, la innovación tecnológica o la educación.

Entre ellas, están la jugadora de balonmano y subcampeona del mundo Ainhoa Hernández, la científica Marta Macho, premio Emakunde a la Igualdad, o la historiadora Miren Arzallus, directora del Museo de la Moda de París.

Como antesala a la celebración del Día Internacional de la Mujer, todos los martes de febrero se celebrarán estas jornadas que abordarán los siguientes temas: “Las mujeres en el deporte” (4 de febrero), “Las mujeres frente a los grandes retos sociales” (11 de febrero), “Mujeres, juventud y redes sociales” (18 de febrero) y “Las mujeres en la gestión creativa y la comunicación” (25 de febrero).

Las integrantes de la RSBAP y doctoras universitarias Inés Pellón, Eva Arrilucea, Estibaliz Apellaniz y Begoña Cava moderarán cada una de las cuatro mesas. Cerca de una veintena de ponentes, en su gran mayoría mujeres, participarán en estas mesas redondas con entrada libre hasta completar aforo.

Programa

Martes, 4 febrero de 2020, 18:30 horas.

Inauguración oficial de las Jornadas por la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Doña Ana Otadui, por el Presidente de la Comisión de Bizkaia y otras autoridades de la RSBAP.

“LAS MUJERES EN EL DEPORTE”

Presenta y modera: **Inés Pellón**, Doctora en Ciencias Químicas (UPV/EHU)

Intervenciones de:

Ana de la Parte, Directora del Universitario Bilbao Rugby Club

Marian Galíndez Urkijo, Presidenta del Club Deportivo de Bilbao

Ainhoa Hernández, Club Balonmano Zuazo de Barakaldo

Kepa Lizarraga Sainz, Médico Especialista en Medicina de la Educación Física y el Deporte

María Tato, Directiva del Athletic Club

Martes, 11 febrero de 2020, 18:30 horas.

“LAS MUJERES FRENTE A LOS GRANDES RETOS SOCIALES”

Presenta y modera: **Eva Arrilucea**, Doctora en Economía (UPV/EHU)

Intervenciones de:

Ana Ayerbe, Directora de Trustech (Tecnalia), experta en ciberseguridad

Jon Barrutia, Decano de la Facultad de Economía y Empresa (UPV/EHU)

Leire Bilbao, Directora General de Innobasque

Lorena Fernández, Directora de Identidad Digital (UD)

Martes, 18 febrero de 2020, 18:30 horas.

“MUJERES, JUVENTUD Y REDES SOCIALES”

Presenta y modera: **Estibaliz Apellaniz**, Doctora en Geología (UPV/EHU)

Intervenciones de:

Itziar Errazti, Psicóloga Educadora. Experta contra la ciberviolencia de género en la ESO

Jorge Flores, Fundador y director del blog “Pantallas Amigas”

Esmeralda Hernando, Blogger, “Conoce Bilbao con Esme”

Marta Macho, Editora del blog “Mujeres con Ciencia” de la Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU

Martes, 25 febrero de 2020 18:30 horas.

“LAS MUJERES EN LA GESTIÓN CREATIVA Y LA COMUNICACIÓN”

Presenta y modera: **Begoña Cava**, Doctora en Historia (Universidad de Deusto)

Intervenciones de:

Andoni Aldekoa de la Torre, Director General del Palacio Euskalduna

Miren Arzallus, Directora del Palais Galliera. Museo de la Moda de Paris

Verónica Elorza, Redactora y antigua Directora del centro territorial de TVE (Euskadi)

Begoña Marañón, Directora Regional de la cadena SER (Euskadi)

Clausura de las jornadas. Acto lúdico.

150 ejemplares

Junto con estas jornadas, se ha presentado también el libro “Las mujeres en Bizkaia, luces y sombras”, del que se han editado 150 ejemplares y que recoge las conclusiones y propuestas de las I Jornadas celebradas los días **5, 12, 19 y 26** de febrero de 2019. Con el mismo formato que este año, expertas ponentes analizaron y aportaron sus experiencias y análisis en torno a cuatro grandes temas: “La mujer en la Ciencia”. “Mujeres en la Sociedad del siglo XXI”, “Mujeres, liderazgo y emprendimiento” y “La mujer en la Política”.

M^a Begoña Cava e Inés Pellón son las editoras de este libro que quiere dejar constancia de las valiosas aportaciones de la primera edición de las jornadas “Las mujeres en Bizkaia”.

Como afirma la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia Ana Otadui en el proemio de la publicación: “estamos en la época de la resiliencia de las mujeres y de la sororidad, esa relación de hermandad entre mujeres que, con la complicidad de muchos hombres que apuestan y practican la igualdad, está a punto de abrir una etapa en Bizkaia de efectiva creciente igualdad entre hombres y mujeres”.

La igualdad, objetivo común

Las Juntas Generales de Bizkaia organizan este programa de conferencias junto a la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, la institución decana en el ámbito cultural vasco creada en 1764. Las II Jornadas “Las mujeres en Bizkaia, cómo somos, cómo se nos ve” se enmarcan dentro de la dinámica de información, pensamiento, debate y propuestas que caracteriza las actividades de la Comisión de Bizkaia de la sociedad y también, en el objetivo de conseguir la igualdad de mujeres y hombres que persigue desde todos sus ámbitos de actuación la Cámara Foral de Bizkaia.